



ATHLETIC CLUB



KOMUNIKAZIO SAILA

ÁREA COMUNICACIÓN

2022-23



1. AKREDITAZIOAK
2. LEZAMARAKO SARBIDEA
3. ENTRENAMENDU PRESENTZIALAK
4. PRENTSAURREKOAK
5. BANAKAKO ELKARRIZKETAK
6. PARTIDA EGUNAK SAN MAMESEN
7. INFORMAZIOA ETA MATERIALA BIDALTZEA
8. BESTELAKO KUDEAKETAK
9. KONTAKTUAK

Dosier hau orientagarria da eta une bakoitzean egokitu ahal izango da, ematen diren inguruabarren arabera.




1. AKREDITAZIOAK


Webgunean klubeko taldeen akreditazioei buruzko informazio guztia duzue ([zuzeneko esteka](#)). Athleticen webgunean sartuz gero, beheko aldean, Prentsa Gunea aurkituko duzue.

LaLigaren bitartez lortu ezin duzuen edozein gestio konpontzeko, Guillermo Estecharekin (Athleticeko akreditazioen arduraduna) harremanetan jar zaitezket.

AKREDITAZIO PUNTUALAK

Hainbat ekitaldi puntualetarako (esaterako, San Mameseko prentsaurreko instituzionalak, jokalarien aurkezpenak), akreditatzeko eman beharreko pausoak ohiko bidetik bidaliko dira (whatsapp bidezko zerrenda).





2. LEZAMARAKO SARBIDEA

→ Hedabideentzako ohiko bi sarbideek aparkaleku zaharrekoak izaten jarraituko dute **1** -Sagardotegiko sarrera- 1 zelaiko entrenamentuetarako eta/edo prentsaurrekoetarako. Eta bigarrena, 8 zelaiko lurpeko aparkalekuagatik **2**, emakumezkoen lehen taldearen eta Bilbao Athleticen.

→ Lezamak bi prentsa-areto ditu: Gizonezkoen lehen taldearena **3** eta eraikin nagusiarena **4**, non emakumezkoen lehen taldearen eta Bilbao Athleticen prentsaurrekoak egin ohi diren.

→ Araudi gisa, hedabideei irekitako edozein jardueraren abisuak whatsapp eta/edo webgunearen bidez egingo dira).

3. ENTRENAMENDU PRESENTZIALAK

- Gizonezkoen lehen taldearen entrenamendu irekiak webgunean eta sare sozialetan argitaratzen den lan-plangintzan jakinarazten dira.
- Guztiz irekitako entrenamenduak egon daitezke, edo hasierako minutu jakin batzuetan bakarrik sartu ahal izango direnak.
- Entrenamendu irekia 1 zelaian denean, hedabideen kokapena eraikinaren aurreko harmailaren hasieran izango da. Bertan argi-indar hartuneak daude.
- Entrenamendua beste zelai batean izango balitz, zehaztutako kokapena, egokitutako aparkalekua eta sartzeko modua zehaztuko dira.
- Emakumezkoen lehen taldeko entrenamenduak ikusteko, prentsa-buruari eskatu behar zaio baimena.



Hedabideak
1. Zelaia



4. PRENTSAURREKOAK

LEZAMAN: GIZONEZKOEN LEHEN TALDEA

Prentsaurrekoak gizonezkoen lehen taldearen eraikineko prentsa-aretoan egingo dira. Prentsaurreko hauek klubaren Youtubeko kanalean egongo dira eskuragarri. Horrelako prentsaurrekoak aste barruko ohikoak izango dira (jokalariak eta entrenatzailea).

Prentsaurrekoak bertan dagoen Athleticen komunikazio-arduradunak kudeatuko ditu. Oro har, kazetariak galdera-txanda eskatuko dute, eta txandak **galdera bakarrek** izango dira.

Prentsaurrekoak irauten **duen bitartean inor ezin da bere lekutik mugitu**, prentsa-aretoetik alde egiteko izan ezik.

LEZAMAN: GAINONTZEKO PRENTSAURREKOAK

Ohiko gainontzeko prentsaurrekoak eraikin nagusian egingo dira (5. orrialdea begiratu). Bertan, emakumezkoen lehen taldearen prentsaurrekoak (asteazkenak eta partiden ondoren), Bilbao Athleticen partidetakoa eta Lezamako balizko prentsaurrekoak egingo dira.

SAN MAMESEN: EKITALDI BEREZIAK

San Mameseko Jose Irigarri prentsa-aretoan ekitaldi berezien prentsaurrekoak egingo dira (berritzeak, fitxaketen aurkezpena, ekitaldien aurkezpenak). Horrelako prentsaurreko bat dagoenean, bertara sartzeko informazioaren berri emango da.

SAN MAMESEN: (PARTIDAK)

6. PARTIDA EGUNAK SAN MAMESEN azalduta (9. orrialdean).



5. BANAKAKO ELKARRIZKETAK

→ Elkarrizketen kudeaketa.

Gizonezkoen lehen taldeko jokalarientzako elkarrizketa eskaerak **Ager Sarduri** (prentsa burua) eskatu behar zaizkio.

Emakumezkoen lehen taldeko jokalarientzako eta entrenatzaileentzako elkarrizketa eskaerak **Cristina Garciari** (prentsa-burua) eskatu behar zaizkio.

Gizonezkoen lehen taldeko entrenatzaileari, harrobiko edozein entrenatzaileri eta Klubeko elkarrizketa instituzionalak egiteko eskaerak **Nika Cuencari** (Komunikazio zuzendaria) eskatu behar zaizkio.

→ Kokapena.

Elkarrizketa kudeatzen ari den Athleticeko komunikazio-arduradunak elkarrizketa egiteko lekuri eta unerik onena finkatuko du, kazetariaren, jokalaria eta elkarrizketaren beharrak kontuan hartuta.



6. PARTIDA EGUNAK SAN MAMESEN

→ **Akreditazioak txarteldegian jasotzea.**

‘Akreditazioak-Prentsa’ txarteldegia (7. atearen ondoan) partida hasi baino bi ordu lehenago irekiko da, akreditazioak jasotzeko. Sarrerak jasotzeko beharrezkoa izango da identifikazio-agiriren bat, NANA edo egiaztagiri profesionala aurkeztea.

→ **San Mamesera sartzeko ordua eta atea.**

Sarrerako atea 0 atea da. Irratiak partida hasi baino bi ordu lehenagotik eta partida hasi eta hamar minutura arte sartu ahal izango dira estadioan. Gainerako hedabideak eta argazkilariak partida hasi baino ordu eta erdi lehenagotik eta partida hasi eta hamar minutura arte sartu ahal izango dira. Eskubiderik gabeko telebistak prentsa-tribunan kokatuko dira, LaLigaren ohiko araudiaren arabera.

→ **Kokapena.**

Ohiko prentsa-lekuak izango dira. Eskubiderik gabeko erredaktoreak, irriatiak eta telebista prentsa-tribunan egongo dira eta argazkilariak fondoetan.

Partida hasi baino lehen, eta helburu bakarra jokalarien irteera, kapitainen argazkia eta taldeko argazkia estaltzea izanik, argazkilariak bandan egotea (aulkien ondoan) baimentzen da, eta horiek utzi egin beharko dituzte, atzealdeko posiziora joateko. Atsedenalbian, argazkilariak fondoan aldatu ahal izango dute partiduko jokalariek eta arbitro-hirukoteak zelaia utzi ondoren.



→ Prentsaurrekoa.

San Mameseko partidaren amaieran, entrenatzaileek (lehendabizi bisitaria eta ondoren etxekoa) eta ondoren Athleticen jokalariren bat pasatuko dute Jose Irigorri prentsa-aretoetik. Talde bisitariari aukera hori eskainiko zaio eta, onartuz gero, etxeko jokalaria baino lehenago pasatuko dira.

Gune mistoko gela erabili ahal izango da (hainbat irratik RDSI puntuak dituzte), baina ez da gune mistoa erabiliko protagonisten arretarako.

→ San Mamesetik irtetea.

Hala behar duten erredaktoreak prentsa-tribunan edo prentsa-aretoan geratu ahal izango dira partida bukatu eta ordubete eta hiru laurden geroago arte.



7. INFORMAZIOA ETA MATERIALA BIDALTZEA

→ **Klubaren kanalak.** Ohi bezala, klubaren informazio-bide ofizialak bere webgunea eta sare sozialetan dituen profilak izango dira, eta horietan informazio ugari lor daiteke.

→ **Hedapen-zerrenda.** Garrantzitsua den edo zuzenean bidali behar dela uste dugun hainbat gairekin, whatsapp bidez bidaltzea erabaki dugu. Mezu horiek jasotzen ez dituen edonork Ager Sarduri edo Ibon Landari eska diezaieke. Zabalkunde-zerrendan dagoen norbaitek baja ematea nahi badu, bi pertsona horiei ere eska diezaieke.

→ **Materiala bidaltzea.** Pandemia garaian argazki eta irudi material asko bidali zen, neurri batean, Lezamako instalazioetara sarbiderik ez zegoelako; materiala momentu puntualetan bidaltzeko arauarekin jarraituko dugu, material hori hedabideek euren kabuz hartu ezin dutenean.

→ **Materiala erabiltzea.** Athletic Clubek bidalitako bideo-materiala “irudi-marka” (eulia) barne dela emititu behar da. “Irudi-marka”rik izango ez balu, Athletic Clubeko materiala dela adierazi behar da. Bidalitako argazkiak Athletic Clubaren izenarekin joan behar dira.

→ **Materiala eskatzea.** Athletic Cluben esku egon daitekeen ikus-entzunezko materiala (argazkiak edo bideoak) denean Ibon Landari eskatu behar zaio.



8. BESTELAKO KUDEAKETAK

→ Batzuetan, hainbat komunikabidek beharrian jakin batzuk dituzte, enpresa moduan, eta horiek ez ditu Komunikazio sailak zuzenean kudeatzen (adibidez: jokalaria bat sari banaketa batzuetara gonbidatzea, jokalariren bateri sari bat ematea). Kasu horietan, mezu elektronikoko bat bidali beharko zaio Ibon Landari, ekitaldiari buruzko informazio guztiarekin; eta berak jarriko zaituzte harremanetan dagokion sailarekin.



9. KONTAKTUAK

Azkenik, zuentzat interesgarriak izan daitezkeen mezu elektroniko eta mugikor zenbakiak, bai eta horietako bakoitzaren funtzioak eskaintzen dizkizuegu:

→ **Nika Cuenca** – *Komunikazio zuzendaria*

Informazio instituzionala

Klubeko bozeramaileei elkarrizketak kudeatzea

Ernesto Valverderi egindako elkarrizketen kudeaketa

Klubeko gainerako taldeen elkarrizketa-eskaerak kudeatzea

(lehen taldekoak ez direnak)

n.cuenca@athletic-club.eus

+34 699 906 426

→ **Ager Sardui** – *Prentsa-burua (gizonezkoen lehen taldea)*

Gizonezkoen lehen taldeko jokalarien elkarrizketak kudeatzea

Gizonezkoen lehen taldearen eguneroko informazioa

(ordutegiak, Lezama)

a.sardui@athletic-club.eus

+34 653 712 107

→ **Cris García** – *Prentsa-burua (emakumezkoen lehen taldea)*

Emakumezkoen lehen taldeko elkarrizketak kudeatzea

Emakumezkoen lehen taldearen eguneroko informazioa

(ordutegiak, Lezama)

c.garcia@athletic-club.eus

+34 663 025 639

→ **Ibon Landa** – *Komunikazio koordinatzailea*

Zalantzak, kontsultak eta arazoak konpontzea

landa.hernandez@athletic-club.eus

+34 652 744 317

→ **Guillermo Estecha** – *Akreditazioen arduraduna*

Partiden akreditazioen kudeaketa

g.estecha@athletic-club.eus

+34 650 426 846

→ **Komunikazio Saila** – *Kontaktu orokorra*

Zalantzak, kontsultak eta arazoak konpontzea

prentsa@athletic-club.eus



www.athletic-club.eus

